

**AGINDUA, 2021eko martxoaren 10ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Covid-19ak 2020ko ekitaldian Estatuko eta/edo nazioarteko lehiaketetan parte hartu duten kirol-klubetan eta kirol-instalazio edo gimnasioetan izan dituen ondorioak arintzeko 2021eko dirulaguntzak emateko deialdia egiten den.**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Agindu honen bidez, Covid-19ak Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-instalazio, gimnasio eta kirol-klubetan izan dituen ondorio kaltegarriak arintzeko dirulaguntza-lerro bat ezartzen du.

Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan bildutako neurrien artean, eten egin zen kirol-jarduerak egiteko establezimenduak jendearentzat zabaltzeko aukera. Neurri horiek Euskadiko zein Estatuko araudian txertatu dira, eta kirol-esparruan parte-hartzaileen eta jendearen pilaketa ahal den neurrian saihesteko aplikatu dira azken hilabeteetan, murrizketa handiagoekin edo txikiagoekin.

Urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak, lehendakariarenak, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko, federatuen lehiaketen etetea eta kirol-instalazioetako gehieneko edukieraren eta kirol-arloko lehiaketak, ekitaldiak eta ikuskizunak ikusteko jende kopuruaren murrizketa ezarri zuen, besteak beste. Neurri horien guztien ondorioz, kirol-esparruko erakundeek diru-sarrerak murrizketa oso handia (edo erabatekoa) izan zen.

Ezohiko deialdi hau egiten da Eusko Jaurlaritzarentzat oso garrantzitsua delako herritarren jarduera fisikoa eta kirol-asoziazionismoa sustatzea eta kirolaren antolamendu-egitura pribatuak babestea. Kirol-sektorea pandemiaren ondorioak luzaroan jasango dituenetako bat da, bere jarduera aldi baterako etenda geratu baita, erabat edo partzialki. Deialdi honen bidez, ahal den neurrian arindu nahi dira jarduera profesionalen erabateko eteteak edo etete partzialak deialdian sartutako kirol-eremuko erakundeetan izan dituen ondorioak.

Zirkunstantzia horietan, erakunde publikoek premiazkoa dute osasun-krisiari erantzuteko hartutako neurriek eragindako galera ekonomikoak arintzen laguntzea, sektore horretan diharduten agenteen jarduera ekonomikoa ahalbidetzeko.

Azaldutakoa aztertu ondoren, bidezkotzat hartu da laguntza-lerro baten deialdia egitea, prozedura arin baten bidez adierazitako helburua ahal bezain laster lortu ahal izateko. Horretarako, eta sustapen-neurria 2021eko otsailaren 18ko Aginduaren bidez onartutako eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratutako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotakoan artean dagoenez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2021erako Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa dagoenez.

Horrenbestez, honako hau:

**EBAZTEN DUT:**

## **1. artikulua. – Deialdiaren xedea.**

1.– Agindu honen xedea da pandemiak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko agintari publikoek hartutako neurrien ondorioz pertsona juridiko pribatuek (oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen dituztenek) 2020an izan duten galera ekonomikoa arintzera bideratutako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

2.– Honen bidez, deialdia egiten zaie adierazitako laguntzak lortzeko interesa duten erakundeei.

## **2. artikulua – Aurrekontu-zuzkidura.**

1.– 2021eko ekitaldirako, Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-zuzkidura milioi bat berrehun mila eurokoa (1.200.000) da guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren 2021erako aurrekontuen kontura.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da aurrekontu-baliabideen arabera, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kreditu-loturaren edo aurrekontu-aldaketaren araubideari jarraikiz, prozedura ebatzi aurretik. Hori gertatzen bada, horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Agindu bidez.

3.– Laguntzak esleitzeko, lehiarik gabeko aldi bereko konkurrentzia-prozedura bati jarraituko zaio, eta, prozedura horretan, eskatutako betekizun objektiboak eta subjektiboak betetzen dituztela egiaztatzen duten garaiz eta taxuz egindako eskabide guztiek lortu ahal izango dituzte deialdiaren xede diren laguntzak. Horretarako, 4. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako gehieneko zenbatekoak kontuan hartuta kalkulatu da eskaera bakoitzari dagokion zenbatekoa.

4.– Artikulu honen 1. eta 2. zenbakietan aipatzen den deialdiaren zuzkidura ekonomikoa aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera hasieran kalkulatu zen zenbateko guztiei estaldura emateko nahikoa bada, dirulaguntzak dagozkien zenbatekoekin emango dira; bestela, kalkulu horren arabera zenbatekoei aurre egiteko behar besteko baliabide ekonomikorik ez badago, zenbatekoen murrizketa lineala aplikatu da, zuzkidura estaldura osorako nahikoa den arte.

## **3. artikulua. – Erakunde onuradunak eta laguntzak lortzeko betekizunak.**

1. Deialdiaren xede diren laguntzak artikulu honetan ezarritako betekizun orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona juridiko pribatuek lortu ahal izango dituzte:

A) Deialdi honen ondorioetarako, honako betekizun hauek betetzen dituztenak hartuko dira kirol-instalazioak edo gimnasioak kudeatzen dituzten erakundetzat:

- Kirol-instalazioak edo kirol- ekipamenduak kudeatzen dituzten eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren honako epigrafe hauetakoren bateko jarduerak egiten dituzten enpresak edo erakundeak:

- 8551 (kirol- eta aisialdi-hezkuntza)
- 9311 (kirol-instalazioen kudeaketa)
- 9313 (gimnasioetako jarduerak)
- 9319 (beste kirol-jarduera batzuk)

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratuta dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-instalazioak edo kirol- ekipamenduak kudeatzen dituzten kirol-klubak.

- Dagokion establezimendu edo zentroan langileren bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean eduki izana 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitarteko

aldian. Laguntza zentro edo establezimendu bat baino gehiagorako eskatzen badute, haietako bakoitzerako eskatuko da betekizuna.

- Enpresa-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta egotea eta lantokia bertan egotea.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan 2020ko martxoaren 14a baino lehen alta emanda egotea.
- Eskaeraren egunean aktibo jarraitzea.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

- % 50etik gorako kapital publikoko partaidetza duten kirol-instalazioak edo gimnasioak.
- Enpresa pribatuek emakida-erregimenean edo administrazio-kontratuko erregimenean kudeatutako kirol-instalazio publikoak, kontratu hori enpresa esleipendunaren arrisku eta menturazkoa denean izan ezik. Azken kasu horretan, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presazko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua arabera oreka ekonomikoa berrezarri duten erakundeak ere salbuetsita geratuko dira.

B) Deialdi honen ondorioetarako, honako betekizun hauek betetzen dituztenak hartuko dira kirol-klubtzat:

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea.
- Alarma-egoeraren deklarazioa argitaratu aurretik (hots, 2020ko martxoaren 14a baino lehen) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.
- Euskal kirol-federazioetako bati atxikita egotea.
- Dirulaguntza honen laguntza ekonomikoa jaso dezaketen kirol-klubtzat hartzen dira 2020. urtean Estatuko eta/edo nazioarteko txapelketa edo probetan parte hartu dutenak.
- Dagokion establezimendu edo zentroan langileren bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen eduki izana 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitarteko aldian. Laguntza zentro edo establezimendu bat baino gehiagorako eskatzen bada, haietako bakoitzerako eskatuko da betekizuna. Kirol-klubaren kasuan, lan-kontratua duten jokalariei lotutako kasuak ez dira kontuan hartuko betekizun horren betetzeari begira.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

- Liga profesionaletako kirol-klubak edo sozietate anonimoak.

2.- Nolanahi ere, kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak eta haien kapitalean edo gobernu-organoetan nagusiki administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek parte hartzen duten beste batzuk.

3.- Aurreko atalean aurreikusitakoa ez ezik, erakunde onuradunek honako betekizun hauek ere bete beharko dituzte:

a) Erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Organo kudeatzaileak ordainketa egin aurretik eta automatikoki egiaztatuko du zerga-

betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla. Edonola ere, eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, bere kontura aurkeztu beharko ditu egoera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

b) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharren ordainketan egunean egotea.

Laguntzak erakunde onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro amaituta egotea. Halaber, dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da jasotako dirulaguntza itzultzea, itzulketa-prozedura bat amaitu ondoren hori ebazten denean.

c) Erakunde onuradunek ez dute izango dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dien zehapen penal edo administratiborik, eta ez dute izango horretarako desgaitzen dituen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne.

d) Dirulaguntzen onuradun-izaera lortzeko, ezinbestekoa izango da erakunde onuradunak ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. zenbakian aurreikusitako gainerako zirkunstantzietako batean.

e) Erakunde eskatzaileek aktibo jarraitu behar dute eskaeraren datan.

#### **4. artikulua. – Laguntzaren zenbatekoa.**

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira.

2.– Erakunde onuradunari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa eskabidean adierazitako establezimenduan edo lantokian 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra arte altan emanda dauden langileen gehieneko kopuruaren arabera ezartzen da, honako taula honi jarraikiz:

- 1-3 langile: 3.000 €
- 4-9 langile: 4.000 €
- 10 langile edo gehiago: 5.000 €

3.– Establezimendu edo zentro bakoitzeko laguntza bakarra emango da, eta erakunde bakoitzeko bost establezimendurentzat emango da gehienez.

4.– Erakunde batek hainbat establezimendutarako eskaera bat baino gehiago aurkeztu baditu (bost gehienez), langileen guztizko kopurua establezimenduen guztizko kopuruarekin zatituko da, eta emaitzazko kantitatea izango da zenbatekoa zehazteko erabiliko dena. Kasu guztietan, langileen guztizko zenbaketan aktibo, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean, lan-harremanaren etete-egoeran edo jarduera uzteko egoeran dauden soldatapeko langileak sartuko dira, lanaldi osoan zein partzialean dihardutenak. Zenbaketatik kanpo geratzen dira lan-kontratua duten kirolariak.

#### **5. artikulua. – Eskaeren aurkezpena.**

1. – Establezimendu edo kirol-klub bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da; nolanahi ere, erakunde batek haietako batzuentzat (5entzat gehienez) eskatu ahal izango ditu laguntza

horiek, bakoitza bere eskaerarekin. Erakunde batek hainbat establezimendu eta/edo zentrotarako eskaerak aurkezten baditu, lehenik aurkeztutakoak baino ez dira kontuan hartuko, onar daitezkeen zentroen gehieneko kopuru hori osatu arte. Gainerakoak ezetsi egingo dira.

2. Kirol-klub batek kirol-instalazioetarako dirulaguntza ere eska badezake, eskaerak bereiz aurkeztu beharko dira eta bakoitzari dagozkion betekizunak beteko dira.
3. Agindu honen babesean dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
4. Erakundeek bide elektronikotik izapidetu beharko dute dirulaguntza nahitaez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan zein 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako erregistro elektronikoetan aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak eta justifikazioak.
5. Erakunde interesdunek euskadi.eus egoitza elektronikoaren bitartez eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte eskaerari lotutako izapide guztiak, honako helbide honetan:

[www.euskadi.eus/servicios/1200001](http://www.euskadi.eus/servicios/1200001)

Eskaeraren ondorengo izapideak, bide elektronikotik, honako webgune honen bitartez egingo dira:

<http://www.euskadi.eus/micarpeta>

6. Erakunde eskatzaileek euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute eskaera, erantsitako dokumentazioarekin batera. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozedura osoan, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.
7. Eskaerak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

## **6. artikulua. – Eskatutako betekizunen egiaztapena eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

Erakunde eskatzaileek eskabidea (I. Eranskina) eta erantzukizunpeko adierazpenen eranskina (II. Eranskina) bete beharko ditu. Haien artean, honako atal hauen erantzukizunpeko adierazpena txertatuko da:

1.– Erakundea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 3 artikuluan zehaztutako kausetako bati lotuta.

2.– Erakunde eskatzaileari buruzko datuen adierazpena. Datuen artean, berariaz zehaztu beharko dira laguntza-eskaeraren xede den establezimenduaren kokapena eta izena, baita eskabidean aipatzen den establezimendua alta emanda dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren epigrafea ere. Kirol-kluben kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroko erregistro-zenbakia eta inskripzio-data zehaztu beharko dira.

3.– 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitarteko plantilla osoari buruzko datuen, haren kategoriaren eta laguntza-eskaeraren xede den establezimendu edo lantokiko langile bakoitzaren gizarte-segurantzako zenbakiaren adierazpena.

4.– Laguntza-eskaeraren xede den lantokia edo establezimendua EAEn kokatuta dagoela, 2020ko martxoaren 14a baino lehen abian zegoela eta dirulaguntza eskatzen den datan abian jarraitzen duela.

5.– Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion epai irmo bidezko zehapen penal edo administratiborik jaso eta ez duela horretarako desgaitzen duen legezko ezein debekurik.

6.– Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako ezein itzulketak edo zehapen-prozeduratan. Sartuta badago, prozeduraren edo prozeduren identifikazioa jakinarazi beharko du.

7.– Ez dagoela zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluari jarraikiz.

8.– 2019ko, 2020ko eta 2021eko zerga-ekitaldietan Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako araubideari lotutako laguntzak jaso dituen ala ez. Jaso baditu, zenbatekoa eta erakunde emailea adierazi beharko ditu.

9.– Erakunde eskatzaileak ez duela administrazio publiko baten edo gehiagoren % 50etik gorako partaidetza (zuzenekoa edo zeharkakoa).

10.– Erakunde eskatzaileak administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati laguntza eskatu diola eta/edo haren laguntza bat jaso duela.

11.– Deialdi honetan erakunde onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Arrisku eta menturazko esleipen-araubideko erakunde esleipenduna bada, kontratuaren kopia autentikoa.

Erakunde interesduna ez da behartuta egongo edozein administrazio egindako dokumentuak aurkeztera, betiere dirulaguntza-deialdi hau kudeatzen duen organoak dokumentu horiek kontsultatu edo jasotzeko baimena ematen duela adierazi badu. Erakunde interesdunak kontsulta edo lorpena baimendu duela ulertuko da, prozeduran berariaz kontrakoa adierazten ez bada.

## **7. artikulua. – Eskaeren eta dokumentazioaren akatsen zuzenketa.**

Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioak Agindu honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badituzte edo edukia nahikoa ez bada, 10 egun balioduneko epean dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Administrazioak eskaerari buruzko berariazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Eskaera bide elektronikoz aurkeztu behar duen erakunderen batek presentzialki aurkezten badu, bide elektronikoz aurkezteko betebeharra duela adieraziko zaio. Ondorio horietarako, eskaera bide elektronikoz egiten den eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

## **8. artikulua. – Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Agindu honetan ezarritako mugak galarazi gabe, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira edozein administrazio edo beste erakunde publiko edo pribatu batek helburu berarekin ematen dituen dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo beste baliabide batzuekin.

## **9. artikulua. – Kudeaketa, ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta errekurtsioak.**

1.- Deialdia kudeatzeko zereginak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari dagozkio, eta zuzendaria izango da kudeaketa-organoa.

2.- Deialdian aurkeztutako eskaerak bidezko prozeduraren bitartez izapidetuko dira, eta haren ebazpena Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariari dagokio.

3.- Hartzen den ebazpenak zehaztuko du eskatutako dirulaguntzak eman edo, hala badagokio, ezetsi behar diren, eta, ematen badira, pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko ditu. Ezetsitako eskaeren kasuan, eskatzaileen identitatea edo izen soziala eta ezespenezaren oinarri diren arrazoiak jasoko ditu.

Gainera, emandako laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoari lotuta daudela jakinaraziko du.

4.- Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, erakunde interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

5.- Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta jakinarazpenaren ondorioak izango ditu. Ebazpena argitaratzen den egunean bertan, horren berri emango zaie eskaeran gailu elektronikoko bat eta/edo posta elektronikoko helbide bat identifikatu duten interesdunei.

6.- Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta aurreko paragrafoan ezarritako argitalpena egin ez bada, interesdunek, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.9 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, dirulaguntza jasotzeko eskaera ezetsitzat hartu ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

7. – Agindu honetan aurreikusitako laguntzak pertsona eta erakunde onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro amaituta egotea. Prozedura laguntza publikoak jasotzeko desgaitasunarekin edo itzultzeko betebeharra ezartzearekin amaitzen bada eta itzulketa ordainketa egiteko borondatezko epean egiten ez bada, baldintzapean emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun-izaera lortzeko debeku bat urratu izanagatik.

## **10. artikulua. – Dirulaguntzaren ordainketa.**

1.- Laguntza ordaindu ahal izateko, beharrezkoa izango da pertsona edo erakunde onuraduna Ekonomia eta Ogasun Sailaren hirugarrenen erregistroan altan emanda egotea. Erregistroan altan emanda ez badago edo agertzen diren banku-datuak aldatu nahi baditu, bidezko inprimakia bete beharko du ezarritako ereduaren arabera, honako webgune hauetan:  
<https://www.euskadi.eus/altaterceros> eta <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>.

2.- Emandako laguntza ordainketa baten bidez gauzatuko da, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi zenetik 11. artikuluan adierazitako epea igaro ondoren, betiere aurretik uko egiten ez bazaio.

3.- Ez da ezein ordainketarik egingo onuradunak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte

Segurantzarekikoak egunean ez dituen edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna den bitartean.

4.- Laguntzak ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro amaituta egotea.

#### **11. artikulua. – Onuradunen betebeharrak.**

Deialdi honen xede diren laguntzen pertsona eta erakunde onuradunek oro har diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte, eta, zehazki, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, onuradunari dirulaguntzaren emakida jakinarazteko komunikazioa jaso eta hamar eguneko epean onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu dela ulertuko da.

b) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haien funtzioen esparruan, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dioten informazioa ematea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi diren eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozeduren berri ematea.

e) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako laguntzari dagokionez egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkienak onartzea.

f) Administrazio-agintaritzak SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari aurrea hartzeko ezartzen dituen neurri espezifikoek esparruan, laguntza jaso duen zentro edo establezimenduaren jarduerari eustea, laguntza ordaindu eta 3 hilabetez gutxienez.

#### **12. artikulua. – Ez-betetzeak eta itzulketak.**

1.- Laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez badu, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak, onuradunari entzun eta dagokion prozedura bideratu ondoren, emandako laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela deklaratu du.

2.- Gainera, emandako laguntza ordaindu bada, jasotako zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra eta dirulaguntzen arloko berandutze- interesaren eskakizuna deklaratu ahal izango dira, dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte edota zordunak itzulketa egiten duen egunera arte (lehenago eginez gero), dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

3.- Eta, hori guztia, bidezkoak diren gainerako ekintzak galarazi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren konturako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra

arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

4.- Itzulitako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat hartuko dira bidezkoak diren lege-ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

### **13. artikulua. – Eskumenari buruzko Europako araudia.**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko (EBAO L352, 2013ko abenduaren 24koa) Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako «minimis» arauari lotuta eratuko dira. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati emandako «minimis» laguntzen guztizko zenbatekoa 200.000 eurokoa izango da gehienez hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Muga hori aplikatzeko, adierazitako erregelamenduaren 2.2 artikuluan aurreikusitako «enpresa bakarraren» definizioari jarraitu beharko zaio.

Laguntzaren eskatzaileak 2019, 2020 eta 2021eko zerga-ekitaldietan jasotako minimis laguntzen gaineko aitorpena egin beharko du, minimis laguntza berriak adierazitako Erregelamenduan ezarritako gehieneko muga gainditzen ez duela frogatzeko.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datu pertsonalen babesaren arloko informazio-klausula**

Arduraduna: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.

Helburua: 2021. urtean Covid-19ak kirol-instalazio, gimnasio eta kirol-klubetan izan dituen ondorioak arintzera bideratutako dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz egin beharreko eginkizun bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua (dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina).

Hartzaileak: datu pertsonalak arlo horretan eskumenak dituzten Administrazio Publikoei eman ahal izango zaizkie.

Eskubideak: zure datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita datu horien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere, informazio gehigarrian azaltzen denez. Informazio gehigarria: datuen babesaren arloko informazio gehiago lortu ahal izango duzu honako web-helbide honetan: [www.euskadi.eus/rgpd/XXXXXXX](http://www.euskadi.eus/rgpd/XXXXXXX)

### **LEHEN AZKEN XEDAPENA**

Deialdi honi diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) bildutako oinarriko araudian aurreikusten den dirulaguntzen araubide juridikoa aplikatuko zaio. Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. Tituluan eta VII. Tituluaren III. Kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan

xedatutakoa galarazi gabe.

## **BIGARREN AZKEN XEDAPENA**

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari bi hilabeteko epean, bi epeak Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

## **HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA**

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 10a.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

# I. ERANSKINA

## DIRULAGUNTZA-ESKAERA

COVID-109AK 2020KO EKITALDIAN ESTATUKO ETA/EDO NAZIOARTEKO LEHIAKETETAN PARTE HARTU DUTEN KIROL-KLUBETAN ETA KIROL-INSTALAZIO EDO GIMNASIOETAN IZAN DITUEN ONDORIOAK ARINTZEKO 2021EKO DIRULAGUNTZAK.

### ESKAERA AURKEZTEN DUENA

☐ Titularra ☐ Ordezkarria

### ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

#### ☐ TITULARRA

Erakundearen izena, IFK/IFZn agertzen denarekin bat datorrena.

.....

Telefonia:.....

#### ☐ ORDEZKARIA

Pertsona fisikoaren izena / Erakundearen izena .....

.....

Lehen abizena.....

Bigarren abizena.....

Sexua:

Gizona ☐ Emakumea ☐

IFZ edo NAN.....

Telefonia:.....

### JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO OHARTARAZPENA

Helbide elektronikoa (puntu eta koma bidez bereizita)

Telefono mugikorraren zenbakia (sms) (puntu eta koma bidez bereizita)

### JAKINARAZPENAK ETA OHARTARAZPENAK JASOTZEKO ERABILI NAHI DUZUN HIZKUNTZA

☐ Euskara ☐ Gaztelania

## II. ERANSKINA

### Erantzukizunpeko adierazpenak

- Erakundea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 3 artikuluan zehaztutako kausetako bati lotuta.
- Laguntza-eskaeraren xede den establezimenduaren kokapena eta izena, eta eskaeraren xede den establezimendua altan emanda dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren epigrafea.

| ESTABLEZIMENDUA | KOKAPENA | EJSN-AREN EPIGRAFEA |
|-----------------|----------|---------------------|
|                 |          |                     |

- 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitarteko plantilla osoari buruzko datuak (informazio horretan, gizonen eta emakumeen kopurua bereiziko da) eta haren kategoria. Halaber, laguntza-eskaeraren xede den establezimendu edo lantokiko langile bakoitzaren gizarte-segurantzako zenbakia adieraziko da.

| ESTABLEZIMENDUA | LANGILEAK,<br>GUZTIRA | GIZARTE<br>SEGURANTZAKO<br>FILIAZIO-ZENBAKIA | KONTRATUAREN DATA |
|-----------------|-----------------------|----------------------------------------------|-------------------|
|                 |                       |                                              |                   |

- Laguntza-eskaeraren xede den lantokia edo establezimendua EAEn kokatuta dagoela, 2020ko martxoaren 14a baino lehen abian zegoela eta dirulaguntza eskatzen den datan abian jarraitzen duela.
- Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion epai irmo bidezko zehapen penal edo administratiborik jaso eta ez duela horretarako desgaitzen duen legezko ezein debekurik.
- Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako ezein itzulketa- edo zehapen-prozeduratan. Sartuta badago, prozeduraren edo prozeduren identifikazioa jakinarazi beharko du.
- Ez dagoela zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluari jarraikiz.
- Erakunde eskatzaileak ez duela administrazio publiko baten edo gehiagoren % 50etik gorako partaidetza (zuzenekoa edo zeharkakoa).
- Deialdi honetan erakunde onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Ez du xede eta helburu bera duen ezein laguntzarik jaso ezein administrazio publikotatik.

☐☐

Xede eta helburu bera duten honako laguntza hauek jaso ditu (identifikatu erakunde emailea(k) eta zenbatekoa(k))

| Erakunde emailea | Emandako zenbatekoa |
|------------------|---------------------|
|                  |                     |
|                  |                     |
|                  |                     |

- ☐ Xede eta helburu bera duten honako laguntza hauek eskatu ditu (identifikatu eskaera egin zaien erakundea(k) eta eskatutako zenbatekoa(k))

| Erakunde emailea | Emandako zenbatekoa |
|------------------|---------------------|
|                  |                     |
|                  |                     |
|                  |                     |

☐ (BAI/EZ adierazi dagokiona)

“minimis” araubideari lotutako laguntzak lortu ditu, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera, 2019, 2020 eta 2021eko zerga-ekitaldietan.

*Erantzuna baiezkoa bada, erakunde emailea(k) eta zenbatekoa(k) identifikatu behar dira*

| Erakunde emailea | Emandako zenbatekoa |
|------------------|---------------------|
|                  |                     |
|                  |                     |
|                  |                     |